



Gazteria, elgar bizitza eta elkartasuna izango dira lehentasunak.



Diagnosticoko batendako galderak:

Ahaztutako gazteria ?

- *Kanboko irakaskuntza kolegioaren bukaeran gelditzen da: zer proposatzen zaie gure gazteei (15-30 urte) prestakuntza eta animazio gaietan?*
- *Osoki aurkitzen ahal dute beren lekua herriko bizitzan?*
- *Errazten ahal da gazteen eta familien bizitza?*

Hautzaindegia, kantina, eskolaz kanpoko eskaintza, beharren mailan direa?

Nola indartu daitezke eskolen arteko harremanak?

Elgarbizitza indartu beharrekoa?

- *Kanbok elkarte sare aberatsa eta dinamikoa du.*
 - *Elkarteak aski behatuak eta ezagutuak direa ? Zuzentasunez tratatzen direa?*
 - *Haien lana behar bezain sustengatua dea?*
 - *Herriko etxeak elkartearen arteko loturak aski bultzatzen ditia?*
 - *Elkarteei eskaintzen diren laguntza mota ezberdinak gardenak direa?*
- *Auzoen aniztasuna baliatu behar da:*
 - *Batzuk ahantziak direa ? Elgarren arteko elkargune nahikorik ahal badago ?*
- *Nola harreman gehiago eraiki belaunaldien artean?*



60 elkarte baino gehiago

Kanboko biztanleria uste baino egoera ahuleagoan da :

- *Politika soziala egoeraren errealitatera egokitzen ahal da?*
- *Nola hartu gehiago kondutan gure adinekoak gure herrian?*
- *Ez ahal zaituzte kezkatzen droga kontsumoa ohiko bilakatzea eta horren ondorioz garatzen diren trafikoak?*

25€

Kanboko HESZ-aren aurrekontua :
25 € /biztanleko da
ipar Euskal Herrikoaren batez bestekoa :
57 € /biztanleko.



Gure proposamenak:

15-30 URTE ARTEKO GAZTEAK HERRIAREN ETORKIZUNEAN INPLIKATU :

- Lizeo maileko eta unibertsitate osteko formakuntza-aukerak sustatzea.
- Gazte Informaziorako Puntua (GIP) Ustaritzerekin partekatzea.
- Gaztetxearekin, 2 besta komiteekin eta beste gazte-erakundeekin lankidetzan aritzea, haien jarduerak eta ekitaldiak balioesteko.

HAURRARI ETA BURASOTASUNARI LEHENTASUNA BERRIRO EMAN :

- Gaur egungo haurtzaindegia proposamenei eskaintza osagarri bat sortzen laguntzea (adibidez, Kanbo Behereko eskolan, murgiltze haurtzaindegia bat).
- Jantokiko kudeaketa erabat berrikustea (burasoeekin eta hautetsiekin elkarlanean), janarien kalitatea eta osagai ekologiko/tokikoen jatorria berreskuratzeko.
- « Tresna Eskutan » elkarteak herrian egiten dituen ekintzak hedatzen laguntzea (elkarte horrek eskuzko lanbideen transmisioa bultzatzen du, haurraren sistema neuronala garatzen du).
- Hezkuntza zentroekin koordinatuta, prebentzio-ekintzak egitea: pantaila aurrean denbora mugatzea, osasun mentalari buruzko sentsibilizazioa, premia bereziak dituzten haurren integrazioa, etab.

GIZON-EMAKUMEEN ARTEKO BERDINTASUNA BATZORDEAREN EKINTZAK JARRAITU ETA INDARTU :

- Sexismoaren aurkako borroka, familiako indarkeriaren aurkako prebentzioa, laneko diskriminazioaren aurkako neurriak, etab.

ELKARTE, KIROL ETA BIZIGUNEETAKO JARDUERA GUZTIAK ANTOLATU ETA KOORDINATU :

- Elkartearen Ama Etxea sortu zehazteko dagoen leku batean (Azantza? Fagaldea? Denentzat – Tillac?).
- Dauden elkarte-guneak formalizatzea eta optimizatzea, elkarte hoiekin lankidetzan.
- Elkarteekin eskuz-esku laguntza-politika berrikustea (diru-laguntzak, laguntza logistikoak, etab.).
- Emazteen kirolaren aldeko babesa indartzea, instalazioak egokituz (aldagelak, etab.).
- Zein kirol-ekipamendu berri behar diren aztertzea : trinketa bat, bigarren sintetikoazko futbol-zelaia (Pedro Halty).

HEZKUNTZA-KOMUNITATEA DINAMIZATU :

- Eskolen eta kolegioen artean proiektu amankomun berriak sustatzea (artea, ekologia, kirola, etab.).
- Kanboko ikastetxe guziekin lankidetzan, haurrentzako sentsibilizazio-ekintzak eta jarduerak kulturalak antolatzea.
- Debarekin truke-programak sustatzea parekatzearen esparruan, logistika eta aitzinkondu bidez lagunduz.
- Kultura- eta kirol-erakundeekin hitzarmenak sinatzea Ikastetxe guziei proposatzea, euskal nortasunaren ezaugarriak hobeto ezagutzeko (euskal dantza, pilota, kantua, antzerkia, etab.).



AHUL DIREN PERTSONEN BEHARRAK AZTERTU :

- Ahultasuna detektatzen eta aurreikustean lan egitea, herriaren esku dauden ahalmen guziak baliatuz
- Sozial ekintzaren 360°-ko ikuspegia ukaitea, aldi baterako Herri xerbitxuen birmoldaketa batekin batera: HESZ gaur egungo perimetroan, eskola-laguntza, desgaitasun-egoeran dauden pertsonak kondutan hartzea, Lurralde Baliabideen Zentroa (CRT gerontologia) integratzea, etxebizitzaren kudeaketa (larrialdiak...).
- Eragileen arteko lankidetzaren bultzatzea (adibidez, kirola eta desgaitasuna).
- Francessenia eta Celhaya elkarteei laguntza aktiboa eskaintzea, euren politika sozialean duten eragin nagusia indartzeko eta beren lurralde ereduak babesteko.

AUZOGUNEEN ARTEKO TRATAMENDU-OREKA ZAINDU :

- Erreferentziako binomiak auzoz auzo ezartzea (hautetsia – herritarra).
- Animazio ekintzetarako edo ekipamenduetarako aitzinkondututako parte-hartzailea, auzoguneka, ezartzea.

ANIMAZIO-EKINTZAK INDARTU

- Bideratzaile-funtzio sistematikoa ukaitea (adibidez: Juggleux gela estaliaren barne-araudiaren erreforma, Herriaren autobusaren erabilera, ...).
- Auzogune bakoitzetako auzokideen bestak antolatzen sustatzea eta laguntzea.
- Ostutuen jabeak eta merkataria hiriaren animazioan inplikatzea.
- Denentzat idekia den ikusgarri proiektu bat bultzatzea, kabalkada edo pastoralak gisakoa, Debarekin.
- Osagarriaren eta ongizatearen inguruan, animazio ekimenak elkar lantzea ("urri arrosa", organo emaite eguna, odol-emaileen operazioak...).
- Etorri berrien harreran berrikuntzak egitea, gure nortasunaren egiako transmisioa bermatuz (Ataria elkartearekin lankidetzan).

KANBOKO BIZTANLEEN HIRIZAINZTA SEGURTATU :

- Ibilgailuen zirkulazioa segurtatzea (abiadura, efektu optikoak duten oinezkoen pasabideak, bide publikoaren argiak...).
- Zaratak sortutako eragozpenak, ahalik eta gehien murriztea
- Hirizaintzaren kanpoan egoitea indartzea.
- Lehen sokorriendako prestakuntzak eskaintzea, UDPS 64ren gaitasunetan oinarrituta.
- Krisietan larrialdietarako bizitokiak behar bezala prestatzen direla bermatzea.
- Segurtasun zibileko Herriko erreserba sortzea.

DROGEN AURKAKO BORROKAN ENGAIATUAK DIREN PROTAGONISTA GUZTIEKIN BATERA (ESTATUA, DEPARTAMENTUA, IEHE, ELKARTEAK), GURE HERRIRA ARAZO HORRI EGOKITUTAKO PLAN BAT EZARTZEN LAGUNDU :

- Sentsibilizazio- eta prebentzio-ekintzak.
- Mendekotasuna duten pertsonen laguntza.
- Trafikoei eta haiei lotutako indarkeriaren kontrako borroka.

